Guztiz bestaldera, gizonen pisua % 55 ingurukoa edo handiagoa da EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Magrebetik eta Senegaldik iritsitako biztanleen artean, % 71,6ko maximoarekin senegaldarren kasuan.

Jatorria Txinan duten biztanleei dagokienez baino ezin esan daiteke oinarritzko oreka dagoela biztanleriaren banaketan gizonen eta emakumeen artean

9. EAEn atzerritar jatorriko biztanleen multzo nagusia 25-44 urtekoa da oraindik ere, % 48,4 baitira, eta ondoren 25 urtez azpiko pertsonak daude, % 31,5 (% 21,8 16 urtez azpikoak dira eta % 9,7 16-24 urtekoak). Multzoaren % 28,4 45 urtetik gorakoa da. 65 urte edo gehiagoko kolektiboaren gorakada azpimarratu behar da: 2010ean % 1,2 izatetik 2023an % 5 izatera igaro da eta.

Ehuneko horien azpian 2010-2023an izandako aldaketa batzuk ezkututzen dira, prozesu demografikoak agerian uzten dituztenak. Lehen, eta ziur aski aipagarriena gizarte-ikuspuntutik, 16 urtetik beherako biztanleen kopurua handitu izana da. 2010. urtean 30.098 izan ondoren, 55.776 izan da 2023an, eta igoera % 85,3koa izan da 2010-2023 aldian. 16 urtetik beherako kolektiboak Euskadiko atzerritar jatorriko biztanlerian duen pisua 2010ean % 16,8koa izatetik 2023an % 20,1 izatera aldatu da.

Atzerritar jatorriko kolektiboa zahartzeari lotutakoa da prozesu demografiko garrantzitsua. Hartara, 45 urtetik gorako pertsonen kasuan, biztanle kopurua handitzeko urte arteko erritmoeak % 30etik gorakoak izaten jarraitu dute (% 33,4 2010 eta 2014 artean; % 31,6 2014 eta 2018 artean eta % 43,5 2018 eta 2023 artean). Eta hala, 45 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen kopurua 2010ean 34.136 izan ondoren 86.048 izan da 2023an (+% 75,7). Kolektibo hori 2010ean aztertutako biztanleen % 19 baino ez zen, baina guztizkoaren % 31,0 izan da 2023an.

Ikusitako dinamika demografikoek jokabide berezia dute jatorri geografikoaren arabera. 16 urtetik beherako biztanleei dagokienez, dagokien ehunekoa handiagoa da afrikar jatorrikoen artean (% 30,0 Senegalen kasuan; % 29,4 Magrebi dagokionez; eta % 33,5 Afrikako gainerako herrialdeen kasuan), baina bai eta jatorria Txinan (% 28,6) eta munduko gainerako herrialdeetan (% 28,0) dutenen artean ere.

### 2.2. Ikasketa-maila

10.16 urtetik gorako atzerritar jatorriko herritarren % 76,1ek ez du ikasketa kualifikaturik.

Ikasketarik gabeko pertsonak % 14,3 dira; % 18,7k lehen mailako ikasketak egin dituzte, eta % 43,1ek lehen mailako ondorengo ikasketa ez-kualifikatuak (% 35,9k bigarren mailakoak eta % 7,3k Erdi Mailako LHkoak). Ikasketa kualifikatuak dituztenen artean (% 23,9), % 7,7k goi-mailako LHko ikasketak dituzte eta



% 16,2k hirugarren mailakoak, bidean edo amaituta.

Emandako balio horiek neurri handi batean errepikatzen dute aurreko urteetako egitura, baina aipatzea komeni den aldaketa-dinamika batzuk daude. Ikasketarik ez duten biztanleen pisu erlatiboak gora egin du, eta aztertutako populazioaren % 14,3 da 2023an. Derrigorrezko ikasketak dituztenen artean beherakada handia izan da, ehuneko 7,9 puntuko jaitsierarekin. Bi talde horiek, oro har, 2018an % 39,5 izatetik 2023an % 32,9 izatera igaro dira. Kolektibo horien pisu erlatiboak behera egin badu ere, kopuru absolutuak gora egin du 2018an 65.198 pertsona izatetik 2023an 73.029 pertsona izatera.

Oro har, bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria da Euskadin gehien handitu dena 2018an 51.597 pertsona izatetik 2023an 79.559 pertsona izatera.

Halaber, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopuruak gora egin duela nabarmendu behar da, bai pisu erlatiboari dagokionez, bai absolutuari dagokionez; izan ere, 2018an biztanleriaren % 21,8 izatetik 2023an % 23,9 izatera pasatu da, eta 2018an 36.022 pertsona izatetik 2023an 53.069 pertsona izatera.

Ikasketak izateak nabarmenki bereizten ditu atzerritar jatorriko biztanleak beren etorkiaren arabera. Ikasketa gutxien dituztenei dagokienez, herrialde multzo batzuk nabarmentzen dira, berorietan gehienez ere lehen mailako ikasketak izan dituzten 16 urtetik gorako pertsonen proportzioa % 50 ingurukoa edo handiagoa baita, eta ikasketa kualifikatuak dituztenen pisu erlatiboa % 15etik beherakoa. 2023an, egoera hori dute ezaugarri etorkia Afrikan duten taldeek.

Latinoamerikako jatorriko taldeek igoera izan dute bigarren mailako ikasketak eta ikasketa kualifikatuak dituzten biztanleen proportzioan. Egoera hori dute ezaugarri jatorria Latinoamerikan duten taldeek. Era berean, posizio hori Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik eta mendebaleko EBtik iritsitako pertsonen ezaugarri bereizgarria da.

## 2.3. Kultura-alderdiak

11. 2023an, atzerritar jatorriko biztanleen % 18,1ek identifikazio mota espezifikoren bat adierazi du berariaz: nazionala, etnikoa, kulturala edo erlijiosoa. Erlijiosoa da atxikipen nagusia: pertsonen % 10,2k kontu hori nabarmentzen dute (% 6,0k kristau-erlijioei dagokienez; % 4,2k erlijio musulmanaz den bezainbatean; eta gainerakoek beste batzuek). Proportzioa % 4,7koa da lurralde-oinarriko identifikazio nazionalaren adierazpideei lotuta, eta % 3,2koa identifikazio etniko edo kulturalen kasuetan

12. Bizi diren lekuko komunikazio-hizkuntzari dagokionez, nabarmentzen da oso zabalduta dagoela gaztelaniaren erabilera, 2023an atzerritar jatorriko biztanleen % 75,6k erabili baitute (gaztelaniaz gain beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten etxeak ere sartzen dira; gaztelaniaz bakarrik hitz egiten duten etxeak % 58,5 izango lirateke.). Euskarari dagokionez, % 2,1ek adierazi dute etxean erabiltzen duten hizkuntzetako bat dela.

Arabiera da atzerritar jatorriko biztanleek asko erabiltzen duten beste hizkuntza bat; biztanle horien % 8,9rentzat da erabilera nagusiko hizkuntza.

Beste hizkuntza batzuen ezarpena askoz txikiagoa da. % 2,0k errumaniera erabiltzen du bizilekuan, % 1,9k ingelesa eta % 1,5k txinera eta urduera.

Jatorria Txinan duten biztanleen % 73,1ek txinera erabiltzen dute lehentasunez etxean, jatorria Magreben dutenen % 48,3k arabiera, eta Errumaniako eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan % 24,5ek errumaniera. Jatorria Senegalen dutenen % 36,6k wolofera eta jatorria munduko gainerako herrialdetan dutenen % 25,1ek urduera erabiltzen dute nagusiki etxean.





## 2.4. Taula estatistikoak

**ID-1. Atzerritar jatorriko biztanleak sexuaren arabera. 2010, eta 2023 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Sexua	2010		2014		2018		2023	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Gizona	86.984	48,4	91.571	46,9	94.937	44,9	132.535	47,7
Emakumea	92.598	51,6	103.675	53,1	116.272	55,1	145.021	52,2
Beste erantzun bat							8	0,0
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>	<b>277.564</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE

**ID-2. Atzerritar jatorriko biztanleak sexuaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(% horizontalak)**

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018		2023		
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Beste erantzun bat
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	57,2	42,8	52,8	47,2	54,1	45,9	56,1	43,9	0,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	48,6	51,4	45,8	54,2	43,9	56,1	48,3	51,7	0,0
Magreb	59,2	40,8	59,9	40,1	55,2	44,8	54,7	45,3	0,0
Argentina, Txile, Uruguai	48,6	51,4	45,7	54,3	44,5	55,5	46,8	53,2	0,0
Kolonia, Ekuador, Peru	43,5	56,5	40,5	59,5	39,9	60,1	46,0	54,0	0,0
Bolivia	41,7	58,3	39,0	61,0	37,4	62,6	41,3	58,6	0,1
Paraguai	39,1	60,9	29,0	71,0	24,7	75,3	35,3	64,7	0,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	36,3	63,7	36,1	63,9	33,8	66,2	41,5	58,5	0,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	27,1	72,9	28,5	71,5	28,7	71,3	34,8	65,2	0,0
Txina	52,7	47,3	48,8	51,2	49,3	50,7	50,5	49,5	0,0
Senegal	78,2	21,8	76,2	23,8	68,9	31,1	71,6	28,4	0,0
Afrikako gainerako herrialdeak	53,2	46,8	61,5	38,5	48,9	51,1	52,6	47,4	0,0
Munduko gainerako herrialdeak	51,6	48,4	48,5	51,5	51,1	48,9	53,2	46,8	0,0
<b>Guztira</b>	<b>48,4</b>	<b>51,6</b>	<b>46,9</b>	<b>53,1</b>	<b>44,9</b>	<b>55,1</b>	<b>47,7</b>	<b>52,2</b>	<b>0,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE

**ID-3. Atzerritar jatorriko biztanleak adinaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Adina	2010		2014		2018		2023	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
0-5 urte	10.506	5,9	14.723	7,5	17.567	8,3	16.589	6,0
6-15 urte	19.592	10,9	20.229	10,4	28.489	13,5	39.187	14,1
16-24 urte	31.002	17,3	20.426	10,5	20.542	9,7	29.030	10,5
25-44 urte	84.347	47,0	94.313	48,3	84.649	40,1	106.709	38,4
45-64 urte	31.971	17,8	39.420	20,2	51.862	24,6	72.120	26,0
65 urte edo gehiago	2.165	1,2	6.134	3,1	8.100	3,8	13.929	5,0
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>	<b>277.564</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ID-4. Atzerritar jatorriko biztanleak, adinaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(% horizontalak)**

	2010				2014				2018				2023			
	Betetako adina				Betetako adina				Betetako adina				Betetako adina			
	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago
Jatorrizko eremua	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	11,6	10,8	48,3	29,3	13,6	6,9	30,0	49,6	9,6	6,3	25,7	58,4	11,2	5,9	29,2	53,7
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	15,8	19,3	45,1	19,9	23,7	8,4	50,7	17,1	26,9	7,8	44,3	21,1	20,9	8,8	38,4	31,8
Magreb	24,3	14,5	43,7	17,5	26,0	9,8	49,0	15,2	35,2	8,2	36,6	20,0	29,4	9,2	35,7	25,8
Argentina, Txile, Uruguai	13,2	19,5	37,5	29,7	8,6	7,9	45,8	37,8	10,5	10,0	32,0	47,4	7,3	7,4	36,4	49,0
Kolonia, Ekuador, Peru	15,4	22,1	43,9	18,6	10,6	17,0	47,7	24,8	9,3	15,0	39,8	36,0	11,8	12,2	39,0	37,0
Bolivia	19,6	17,2	49,4	13,8	23,1	9,1	51,4	16,3	18,3	14,6	44,0	23,1	15,6	16,1	35,4	33,0
Paraguai	11,7	20,1	54,4	13,8	11,2	12,4	56,8	19,6	8,8	14,2	52,6	24,5	4,2	11,1	58,6	26,1
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	11,3	24,2	43,8	20,6	16,6	14,2	46,3	22,9	11,2	13,4	42,2	33,2	15,3	11,1	40,7	32,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9,4	14,4	58,0	18,2	12,7	9,5	54,1	23,6	14,2	5,8	47,0	33,0	18,7	12,6	47,2	21,5
Txina	19,8	17,6	47,8	14,8	23,7	9,9	45,3	21,1	30,9	9,4	40,4	19,4	28,6	8,8	31,8	30,8
Senegal	16,4	10,8	62,7	10,0	16,9	8,7	54,9	19,5	29,9	6,2	50,3	13,6	30,0	10,0	36,8	23,2
Afrikako gainerako herrialdeak	24,0	17,3	51,0	7,7	22,2	8,1	56,1	13,6	37,7	7,8	40,6	13,9	33,5	10,1	32,2	24,1
Munduko gainerako herrialdeak	21,7	11,2	51,4	15,7	18,6	7,5	54,2	19,8	28,5	8,1	38,6	24,9	28,0	8,7	35,6	27,7
<b>Guztira</b>	<b>16,8</b>	<b>17,3</b>	<b>47,0</b>	<b>19,0</b>	<b>17,9</b>	<b>10,5</b>	<b>48,3</b>	<b>23,3</b>	<b>21,8</b>	<b>9,7</b>	<b>40,1</b>	<b>28,4</b>	<b>20,1</b>	<b>10,5</b>	<b>38,4</b>	<b>31,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE

**ID-5. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

	2010		2014		2018		2023	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ikasketa-maila								
Ikasketa esanguratsurik gabe	12.193	8,2	20.610	12,9	21.339	12,9	31.607	14,3
Derrigorrezkoak	42.960	28,7	40.679	25,4	43.859	26,6	41.422	18,7
Bigarren mailakoak	52.872	35,4	53.366	33,3	51.597	31,2	79.559	35,9
LH EM	7.008	4,7	9.436	5,9	12.335	7,5	16.131	7,3
LH GM	7.347	4,9	8.405	5,2	10.222	6,2	17.127	7,7
Hirugarren mailakoak	27.104	18,1	27.798	17,3	25.801	15,6	35.942	16,2
<b>Guztira</b>	<b>149.484</b>	<b>100,0</b>	<b>160.294</b>	<b>100,0</b>	<b>165.153</b>	<b>100,0</b>	<b>221.788</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE


**ID-6. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 urtea. (% horizontalak)**

	2010			2014			2018			2023		
	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak
Jatorrizko eremua	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
EBko mendebaldea	44,6	25,2	30,2	41,6	19,4	39,0	44,2	20,4	35,4	30,9	29,5	39,6
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	34,5	40,6	24,8	40,7	39,4	19,8	28,3	51,5	20,3	29,3	44,5	26,2
Magreb	52,3	34,6	13,2	52,6	35,9	11,5	62,4	27,1	10,5	54,3	33,9	11,8
Argentina, Txile, Uruguai	23,3	43,1	33,6	12,1	47,0	40,9	19,3	43,5	37,2	12,2	45,2	42,6
Kolonbia, Ekuador, Peru	33,3	51,2	15,5	31,1	50,8	18,1	27,8	47,8	24,4	20,0	51,6	28,5
Bolivia	34,5	48,3	17,2	31,9	59,3	8,7	37,1	49,2	13,6	23,8	65,1	11,0
Paraguai	26,4	53,4	20,2	41,4	42,1	16,5	36,2	51,5	12,2	28,1	57,6	14,3
Brasil,Venezuela, Dominikar Errepublika	30,8	46,0	23,2	30,9	39,9	29,1	28,7	45,1	26,2	24,9	44,6	30,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,3	43,1	35,6	32,2	32,6	35,2	33,1	38,6	28,3	32,4	43,4	24,2
Txina	46,1	42,1	11,8	52,5	37,2	10,3	56,7	33,7	9,6	46,2	35,7	18,1
Senegal	66,4	22,5	11,1	66,4	26,1	7,5	71,4	24,5	4,1	68,1	26,6	5,3
Afrikako gainerako herrialdeak	44,1	36,4	19,4	51,7	37,4	10,9	49,3	37,8	12,9	53,5	34,8	11,7
Munduko gainerako herrialdeak	24,9	24,5	50,6	31,9	33,8	34,3	39,4	28,4	32,2	29,1	37,2	33,6
<b>Guztira</b>	<b>36,9</b>	<b>40,1</b>	<b>23,0</b>	<b>38,2</b>	<b>39,2</b>	<b>22,6</b>	<b>39,5</b>	<b>38,7</b>	<b>21,8</b>	<b>32,9</b>	<b>43,1</b>	<b>23,9</b>

Iturria: 2010 eta 2023 arteko AJBI. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ID-7. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Atxikimendu mota	2010		2014		2018		2023	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Id.nazioz gaidikoa/plurinazionala	962	0,5	348	0,2	1.123	0,5	1.263	0,5
Id.Espainia	774	0,4	1.346	0,7	149	0,1	1.146	0,4
Id.Euskadi	396	0,2	960	0,5	649	0,3	1.943	0,7
Id.Nazionala: beste batzuk	7.224	4,0	7.631	3,9	6.405	3,0	8.440	3,0
Id.Tokikoa	824	0,5	72	0,0	15	0,0	216	0,1
Id.Etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3	3.199	1,5	8.748	3,2
Id.Kristauak oro har	1.815	1,0	6.592	3,4	2.743	1,3	2.819	1,0
Id.Katolikoa	6.350	3,5	14.380	7,4	4.001	1,9	5.904	2,1
Id.Ortodoxoa	3.464	1,9	7.245	3,7	1.365	0,6	1.745	0,6
Id.Beste kristau batzuk	4.138	2,3	5.486	2,8	1.623	0,8	6.109	2,2
Id.Musulmana	16.904	9,4	24.618	12,6	7.834	3,7	11.687	4,2
Id.Beste erlijio batzuk	375	0,2	909	0,5	54	0,0	176	0,1
Id.Ateismoa	197	0,1	0	0,0	34	0,0	0	0,0
Id.Sozilogikoa	293	0,2	137	0,1	0	0,0	0	0,0
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0	182.015	86,2	227.367	81,9
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>	<b>277.564</b>	<b>100,0</b>

**ID-8. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren arabera (taldeka). 2010 eta 2023 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Atxikimendu mota	2010		2014		2018		2023	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lurraldea	10.179	5,7	10.356	5,3	8.341	3,9	13.008	4,7
Id.Etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3	3.199	1,5	8.748	3,2
Erlijio-jarrera	33.243	18,5	59.230	30,3	17.654	8,4	28.441	10,2
Id.Sozilogikoa	293	0,2	137	0,1	0	0,0	0	0,0
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0	182.015	86,2	227.367	81,9
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>	<b>277.564</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 aldiko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ID-9. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia**  
(% horizontalak)

	2010						2014					
	Lurraldea	Identifikazio etnokulturala	Erljio-jarrera	Identifikazio soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira	Lurraldea	Identifikazio etnokulturala	Erljio-jarrera	Identifikazio soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira
<b>Jatorrizko eremua</b>												
EBko mendebalde	5,5	1,4	6,6	0,3	86,2	100,0	3,8	0,0	10,1	0,0	86,1	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	5,3	1,3	17,3	0,0	76,1	100,0	11,3	2,2	31,3	0,0	55,2	100,0
Magreb	1,9	11,2	48,0	0,0	38,9	100,0	2,1	9,0	55,5	0,0	33,4	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	0,1	0,0	8,4	0,4	91,0	100,0	7,3	0,8	10,4	0,0	81,5	100,0
Kolonbia, Ekuador, Peru	5,1	0,0	10,4	0,3	84,2	100,0	2,9	0,2	19,7	0,2	77,0	100,0
Bolivia	8,2	0,5	13,1	0,0	78,2	100,0	5,2	1,5	30,1	0,6	62,6	100,0
Paraguai	8,8	0,6	15,2	0,2	75,2	100,0	16,7	1,2	23,3	0,0	58,9	100,0
Brasil,Venezuela, Dominikar Errepublika	4,3	0,1	12,6	0,1	82,8	100,0	0,3	10,9	12,1	0,0	76,8	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	14,2	0,7	85,1	100,0	5,2	0,6	24,5	0,0	69,7	100,0
Txina	27,3	0,3	5,0	0,0	67,4	100,0	15,9	0,6	10,6	0,0	72,9	100,0
Senegal	1,1	9,8	55,2	0,0	33,9	100,0	10,0	3,5	60,3	0,0	26,2	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	23,0	7,6	14,9	0,0	54,5	100,0	3,7	4,8	59,2	0,0	32,3	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	2,1	0,0	19,7	0,0	78,2	100,0	6,0	2,4	41,0	0,0	50,6	100,0
<b>Guztira</b>	<b>5,7</b>	<b>2,6</b>	<b>18,5</b>	<b>0,2</b>	<b>73,1</b>	<b>100,0</b>	<b>5,3</b>	<b>3,3</b>	<b>30,3</b>	<b>0,1</b>	<b>61,0</b>	<b>100,0</b>
	2018						2023					
EBko mendebalde	9,5	0,0	6,5	0,0	84,0	100,0	1,0	0,0	3,4	0,0	95,6	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	2,3	0,0	7,7	0,0	90,0	100,0	1,1	0,3	9,4	0,0	89,1	100,0
Magreb	0,2	3,0	13,3	0,0	83,5	100,0	4,1	9,3	16,6	0,0	69,9	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	5,3	0,0	3,9	0,0	90,8	100,0	1,2	0,0	3,4	0,0	95,4	100,0
Kolonbia, Ekuador, Peru	5,1	0,1	3,8	0,0	91,0	100,0	9,7	1,5	6,4	0,0	82,4	100,0
Bolivia	2,9	2,9	4,1	0,0	90,2	100,0	8,6	7,1	6,1	0,0	78,2	100,0
Paraguai	2,1	0,4	4,3	0,0	93,3	100,0	0,0	0,7	8,9	0,0	90,4	100,0
Brasil,Venezuela, Dominikar Errepublika	8,8	0,4	4,1	0,0	86,6	100,0	8,1	1,9	6,8	0,0	83,2	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	8,3	1,5	8,8	0,0	81,5	100,0	0,0	0,9	13,3	0,0	85,8	100,0
Txina	6,6	0,0	0,5	0,0	92,9	100,0	6,5	0,0	3,3	0,0	90,2	100,0
Senegal	0,0	1,6	25,5	0,0	72,9	100,0	2,6	6,0	20,5	0,0	71,0	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	1,1	6,0	16,9	0,0	75,9	100,0	7,9	4,5	17,8	0,0	69,8	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	2,7	1,7	6,8	0,0	88,8	100,0	3,7	1,5	7,7	0,0	87,1	100,0
<b>Guztira</b>	<b>3,9</b>	<b>1,5</b>	<b>8,4</b>	<b>0,0</b>	<b>86,2</b>	<b>100,0</b>	<b>4,7</b>	<b>3,2</b>	<b>10,2</b>	<b>0,0</b>	<b>81,9</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2010 eta 2023 aldiko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ID-10. Atzerritar jatorriko biztanleak bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren arabera. 2023. urtea  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Komunikazio-hizkuntza	2023	
	Abs.	% ber.
Euskara	760	0,3
Gaztelania	162.258	58,5
Ingelesa	5.238	1,9
Frantsesa	1.434	0,5
Arabiera	24.670	8,9
Errumaniera	5.498	2,0
Portugeses	2.946	1,1
Txinera	4.136	1,5
Berberea	3.026	1,1
Urdu hizkuntza	4.264	1,5
Wolof hizkuntza	2.865	1,0
Europako beste hizkuntza batzuk	4.095	1,5
Afrikako beste hizkuntza batzuk	4.634	1,7
Amerikako beste hizkuntza batzuk	747	0,3
Asiako beste hizkuntza batzuk	1.437	0,5
Euskara eta gaztelania	3.046	1,1
Euskara eta beste hizkuntza bat	1.887	0,7
Gaztelania eta beste hizkuntza bat	44.624	16,1
<b>Guztira</b>	<b>277.564</b>	<b>100,0</b>

Iturria: 2023 urteko Atzerritar Jatorriko Biztanleriaren Estatistika. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE

Oharra: 2023ko inkestan aldatu egin dira hizkuntzen erabilerari eta ezagutzari buruzko galderak. 2010, 2014 eta 2018. urteetako datuak ez dira konparagarriak, eta, horregatik, ez dira taulan ageri.



**ID-11. Atzerritar jatorriko biztanleak, bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2023. urtea**  
(% horizontalak)

	Euskar a	Gaztelan ia	Ingele sa	Frantse sa	Arabie ra	Errumanie ra	Portuge sa	Txiner a	Berber ea	Urdu hizkunt za	Wolof hizkunt za	Europa ko beste hizkunt za batzuk	Afrikak o beste hizkunt za batzuk	Amerika ko beste hizkuntz a batzuk	Asiako beste hizkunt za batzuk	Euskara eta gaztelan ia	Euskar a eta beste hizkunt za bat	Gaztelan ia eta beste hizkuntz a bat	Guztir a	
Jatorrizko eremua	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	0,0	56,5	0,7	1,3	0,0	0,0	4,3	0,3	0,0	0,0	0,0	0,6	0,0	0,0	0,0	1,7	3,3	31,3	100,0	
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	0,1	23,2	0,5	0,0	0,0	24,5	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	3,3	0,0	0,0	0,0	0,0	1,1	47,1	100,0	
Magreb	0,4	21,0	0,0	0,6	48,3	0,0	0,0	0,0	6,2	0,0	0,0	0,0	4,2	0,0	0,0	0,8	1,5	17,1	100,0	
Argentina, Txile, Uruguai	0,0	95,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	2,2	0,0	2,4	100,0	
Kolonia, Ekuador, Peru	0,2	98,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,1	0,0	0,1	100,0	
Bolivia	0,0	88,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	3,6	0,0	0,3	0,0	7,3	100,0	
Paraguai	0,0	80,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,2	0,0	1,1	0,0	17,4	100,0	
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	0,5	80,0	0,0	0,0	0,0	0,0	8,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	2,5	0,0	8,4	100,0	
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,4	97,2	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	2,1	0,0	0,0	100,0	
Txina	0,2	3,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	73,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	23,2	100,0	
Senegal	0,0	16,5	0,0	5,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	36,6	0,0	13,8	0,0	0,0	0,0	2,3	25,2	100,0	
Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	28,8	24,4	3,3	1,3	0,0	1,6	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	9,5	0,8	0,0	0,4	0,9	29,0	100,0	
Munduko gainerako herrialdeak	0,9	17,7	4,4	0,0	2,8	0,8	0,0	0,3	0,0	17,4	0,0	13,2	0,0	0,0	5,9	0,5	0,4	35,9	100,0	
<b>Guztira</b>	<b>0,3</b>	<b>58,5</b>	<b>1,9</b>	<b>0,5</b>	<b>8,9</b>	<b>2,0</b>	<b>1,1</b>	<b>1,5</b>	<b>1,1</b>	<b>1,5</b>	<b>1,0</b>	<b>1,5</b>	<b>1,7</b>	<b>0,3</b>	<b>0,5</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>16,1</b>	<b>100,0</b>	

Oharra: 2023ko inkestan aldatu egin dira hizkuntzen erabilerari eta ezagutzari buruzko galderak. 2010, 2014 eta 2018. urteetako datuak ez dira konparagarriak, eta, horregatik, ez dira taulan ageri.

Iturria: 2023 urteko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



### 3. EGUNGO OKUPAZIO EGOERA

#### 3.1. Hezkuntza-jardueretan parte hartzea

13.16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleen % 13,7k ikasketaren bat egiten du, eta proportzio horrek gora egin du 2018ko % 12arekin alderatuta. % 9,4k ikasketa arautuak egiten dituzte (2010eko % 11,7aren, 2014ko % 13,6aren eta 2018ko % 10,2aren azpitik). % 4,3k egiten dituzte arautu gabeko ikasketak, eta proportzio horrek gora egin du 2018an erregistratutakoarekin konparatzen badugu.

14. Atzerritar jatorriko biztanleek hezkuntza-prozesuan duten integrazioaren adierazle batzuk jasotzen ditu AJBIk.

Atzerritar jatorriko 16 urtez azpiko biztanleei dagokienez, % 19ren arabera, eskolan integratzeko arazo motaren bat dago. Balio horrek adierazten du gorakada nabarmena izan dela 2018ko % 13,1 balioarekin alderatuta, orain arte ikusitako mailarik altuena baita. 16 urte eta gehiago dauzkaten artean, ostera, 2018ko % 24,7tik 2023ko % 16,6ra jaitsi da.

Lehenengo aldiz, irakaskuntzan erabilitako hizkuntzari lotutako arazoak dira problematarik garrantzitsuena % 9,1ekin eta bigarrena eskola-atzerapena % 7,7rekin. 2018an, hizkuntzari buruzko arazoak 16 urtetik beherakoen % 3,5i eragiten zien, eta eskola-atzerapena % 7ri, 2010eko % 8,7aren azpitik, baina 2014ko % 4,5aren aldean gora. 16 urtetik gorakoen artean, eskola-atzerapena 2018ko % 19,3tik % 9,2ra jaitsi da, eta ehuneko handiena duen arazoa da. Biztanleriaren % 5,2k hizkuntzarekin duen arazoa azken urteetako baliorik altuena da talde horretan.

Aurreko urteekin alderatuta, gora egin duen beste arazo bat ikasketak behar baino lehenago uztearekin lotutakoa da, 1.728 pertsoneri eragiten baitie, 2018an lortutako datuekin alderatuta % 32,8ko igoera. Bestalde, biztanleriak ez du absentismo arazorik aipatu, eta hartzaindegi batean plazarik ez izateak nabarmen egin du behera, bizikidetzaren unitateetan dauden 231 pertsoneri bakarrik eraginez.

#### 3.2. Jarduerarekiko, okupazioarekiko eta langabeziarekiko erlazioa

##### 3.2.1. Adierazle orokorrak

15.a) Atzerritar jatorriko 211.421 pertsona daude aktiboa izan daitekeen adin-tartean, 16 eta 66 urte artean; hau da, 2018an (159.052) baino % 32,9 gehiago. Kolektibo horrek EAEko 16-66 urteko biztanleria osoa duen pisua 2010ean % 9,9, 2014an % 10,8 eta 2018an % 11,2 izan ondoren, 2023. urtean % 14,8ra igo da.

2023an, atzerritar jatorriko 132.409 pertsona landunak dira. Zenbateko horrek esan nahi du okupazioa 2018koa eta 2014koa baino askoz handiagoa dela. Atzerritar jatorriko 16-66 urteko landunen ehunekoa 2023. urtean zertxobait igo da % 62,6raino; 2018an, berriz, % 62koa zen.

Bestalde, etengabe handitu da EAEko landun guztien artean atzerritar jatorriko kolektiboari dagokion proportzioa: 2010ean % 8,3tik 2014an % 8,5era, 2018an % 10,5era eta, modu bereziki deigarrian, % 13,7ra 2023an.

Daukaten jardueraren gaineko adierazpen orokorrean oinarrituta langabe potentzialtzat jo litezkeen biztanleen kopurua 31.182ra iritsi da, 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleen % 14,7. 2010-2014 aldian 34.539tik 48.880ra igo ondoren, langabeen ehunekoa egonkor mantendu da jaitsiera txiki batekin 2018ko % 15arekin alderatuta.





Biztanleria ez-aktiboa gainerako % 22,6 da, beheranzko joeran 2018ko % 23rekin alderatuta. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleen jarduera-tasa 2018an % 77tik 2023an % 77,4ra igo da.

2018 eta 2023 artean okupazioa asko handitu delako testuinguruan (98.661tik 132.409ra), aldi horretan biztanle aktiboen proportzioa egonkor mantendu da, eta, beraz, baita langabeen proportzioa ere. Langabezia tasa-potentziala 2018an % 19,5tik 2023an % 19,1era jaitsi da.

Atzerritar jatorrizko herrialdeari erreparatuz gero, alde esanguratsuak daude jardueran, okupazioan eta langabezian. Okupazio-koefiziente handieneko taldearen eta txikiena duenaren arteko aldea 66,9 puntukoa izan zen 2014an, 49,6koa 2010ean, 42,4koa 2018an, eta 2023an hain handia izan gabe ere, oraindik ere portzentajezko 37,5 puntukoa da.

Okupazio-maila handiena txinatar jatorrikoei dagokie: 16-66 urteko 100 landuneko 81,1 da, eta langabezia-tasa potentziala, berriz, % 1,6. Kolektibo horrek 2010etik izan ditu ezohiko balio on horiek. historikoki atipikoa da okupazio-eredu txinatarra Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleen testuinguruan, baina emaitzetan, batez ere okupazioaren ikuspegitik, gero eta gutxiago urruntzen da 2023an atzerritar jatorriko beste talde batzuei dagokienetik. Hartara, urte horretan, benetan landuna den adin aktiboko biztanleen proportzioa % 79,2 izan da Paraguairi dagokionez, eta % 75,5 Argentina, Txile eta Uruguai herrialdeei dagokienez.

Okupazio-koefizienteak 2018an baino hobeak dira ia talde guztietan. Igoera handiena Bolivian jatorria duten pertsonen taldeak izan du, 9,8 puntu igo baita, % 72,4ko okupaziora arte. Ia jatorri guztietan % 60 eta % 75 bitarteko okupazio-tasak daude, Euskadiko batezbestekoaren gainetik, EBko herrialdeetatik eta Latinoamerikatik etorritako talde guztietan. Talde horietan guztietan langabezia-tasek behera egin dute, eta langabezia-tasak gora egin duen talde bakarra Kolonbia, Ekuador eta Peruko biztanleria izan da, ehuneko 4,8 puntu igo baita eta % 20n kokatu.

Senegaldik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen artean, okupazio-tasak % 56 eta % 58,7 dira, hurrenez hurren, eta langabezia-tasak % 15etik gorakoak dira, % 17,7 munduko gainerako herrialdeetarako eta % 29,9 Senegalgo biztanleentzat.

EAEko batezbestekoaren oso azpitik, 16-66 urteko biztanleen okupazio-koefizientea oraindik ere % 44tik beherakoa da Magreb eta Afrikako gainerako herrialdeetan jatorria dutenen artean. Dena dela, talde horietan okupazio hazkundeak izan dira. Magreben kasuan, okupazio koefizienteak %38,7tik % 43,4ra egin du 2018tik 2023ra. Afrikako gainerako herrialdeen kasuan, okupazio koefizienteak %41,4tik %43,7ra handitu da. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasak oso altuak dira talde horietan: % 32,6 Magreben jatorria duten biztanleen artean eta % 42,6 Afrikako gainerako herrialdeetan jatorria dutenen artean.

15.b) Lana dutenen % 62,6arekin alderatuta, azken urtean enpleguarekin loturaren bat izan duten banakoen proportzioa handiagoa da, eta % 70era iritsi da atzerritar jatorriko 16-66 urteko biztanleen artean; balio hori 2018koa (% 68,1) baino portzentajezko 1,9 puntu handiagoa da, 2014ko (% 59) baino askoz handiagoa eta 2010eko % 65,8aren gainetik.

Une honetan biztanle ez-aktiboen %6,4k lanen bat egin dute azken urtean, eta proportzioa % 40,4 da langabeen kasuan. Biztanle langabeen kasuan, ehuneko hori etengabe igo da 2014ko %28,2tik, 2018ko % 31,6ra eta 2023ko % 40,4, baina 2010eko % 48,2aren azpitik dago.

### **3.2.2. Biztanle landunen ezaugarriak**

16. Atzerritar jatorriko biztanle landun gehienek zerbitzu-sektorean lan egiten dute: guztien % 73,6k. Proportzio hori 2018koa (% 76,8) baino txikiagoa da, baina balio absolutuetan, ordea, zerbitzu-sektoreko okupazioak



gora egiten jarraitu du: % 10,9 handitu zen 2010 (55.929 landun) eta 2014 artean (62.047 landun), eta % 22 handitu da 2014 eta 2018 (75.724) artean, eta 97.551 pertsonen balio maximoa 2023an, 2018an baino % 28,8 gehiago. Atzerritar jatorriko biztanleen barruan, oro har, okupazioa % 74,3 handitu da zerbitzu-sektorean 2010 eta 2023 artean.

Hirugarren sektorean, orain arte nagusi izandako hiru okupazio-adarrek nabarmentzen jarraitzen dute: etxe-zerbitzuak (okupazio osoaren % 16,5 2018an), ostalaritzak (% 15,5) eta merkataritzak (% 13,5). Hiru adar horiek 2023ko guztizko okupazioaren % 45,4 biltzen dute. Zeukaten pisu erlatiboa % 49,8tik % 59ra handitu zen 2010 eta 2014 artean, eta ondoren jaitsiera % 49,4ra 2018an, proportzioak beheranzko joera izaten jarraitzen du 2023an.

Zerbitzu-sektoretik kanpo, industrian eta eraikuntzan enplegua suspertu izana da 2018-2023 aldiko funtsezko alderdi bat. 2010-2014 aldian, okupazioa -% 39,7 jaitsi zen bi sektore horietan, eta enplegatutako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua 19.219tik 11.587ra beheratu, 2018an enpleguak berreskuratu ziren 21.459ra heldu arte. 2023an, bi sektore horietan 31.944 pertsona daude, biztanle landun guztien % 24,1.

2018-2023an, orokortua izan da okupazioaren susperraldia industrian eta eraikuntzan. Hala ere, dinamikarik onena eraikuntzari dagokio 15.410 lanpostuekin, % 78,6ko hazkundearekin 2018ko 8.630 lanpostuekin alderatuta.

2010 urtetik nekazaritza eta arrantzan okupazio galeraren ondoren, 2018an landunak 1.479 baino ez ziran. 2023an zifra horrek gora egin du (2.308), eta 2010eko 1.832ko zifra baino altuagoa da. Populazio horri atzerritar jatorriko pertsonen guztizko okupazioan dagokion pisua % 2,2ra igo da.

2023an, askotariko okupazio-orientazioa mantendu da atzerritar jatorriko biztanleen etorkiaren arabera. Alde batetik, zerbitzu-sektoreko pertsonen proportzioa % 80ra hurbiltzen da, edo ehuneko hori gaintzen du, jatorria Latinoamerika osoan eta Txinan jatorria duten biztanleen artean. Ia beti gutxiengoduna izanda ere, gainerako sektoreetako okupazioa askoz handiagoa da atzerritar jatorriko gainerako kolektiboetan

Senegalen eta Afrikako gainerako herrialdeetan, zerbitzuetakoak ez diren enplegu-maila altuek lotura dute industrian duten presentziarekin, % 39,6 eta % 27,3, hurrenez hurren. Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk eta Magrebeko kasuan, eraikuntzaren sektorearekin lotzen dira, % 23,1 eta % 22,5ekin, hurrenez hurren. Senegaldik etorritako taldea da nekazaritzan eta arrantzan presentzia adierazgarria duen bakarra (% 18,3).

17. Atzerritar jatorriko biztanle landunen zati nagusiak, % 58,5ek, langile kualifikatu edo erdi kualifikatu moduan lan egin du 2023an (77.417 pertsonak), hau da, ia kualifikaziorik gabeko kolektiboaren % 22ren bikoitzaren gainetik. Zuzendariak, teknikariak eta enplegatu administratiboak okupazioaren % 19,5 (25.840 pertsona) baino ez dira.

Jatorri geografikoaren arabeko aldeak oraindik ere handiak dira kontu honetan. Alde batetik, zuzendarien, teknikarien edo enplegatuen pisu erlatiboa handiagoa izan da, eta % 35etik gorako okupazioa izan dute 2023an, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain, Txinan eta munduko gainerako herrialdeetan duten pertsonen kasuan. Txina nabarmentzen da % 73,1ekin kategoria horretan.

Baina kualifikatu gabeko biztanleen pisua oso handia da, % 25ekoa edo handiagoa, jatorria Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivian, Paraguain, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean.

Talde guztietan, Txinan izan ezik, biztanleria erdi-kualifikatu edo kualifikatuaren tarteko taldeak % 50eko



maila gaitzen du.

18. Atzerritar jatorriko landun gehienak (% 83,1) soldatapekoak dira ekonomia-sektore pribatuan. Proporziorik handiena da 2010. urteaz geroztik. Pertsona kopurua 110.095 da, 2018an baino % 35,2 gehiago.

Era berean, nabarmenezkoak dira enplegatzaileak, biztanle autonomoak eta familia-laguntzak, % 14,9 baitira 19.111 pertsonekin. Datu absolutu hori baliorik handiena da, baina bere pisu erlatibo 2010. urtetik jaso den txikiena da.

19. Atzerritar jatorriko 112.304 soldatapekoen artean, oraindik ere garrantzi handikoak dira behin-behinekotasuna edo kontraturik eza ezaugarri duten egoerak. Hartara, kontuan hartutako biztanleen % 23,3k mugagabea ez den kontratu batekin lan egiten dute, eta % 5,5ek kontraturik gabe, eta, orotara, guztien % 28,8 dira.

Nolanahi ere, mugagabeko kontratazioaren pisua etengabe handitzea da dinamika azpimarragarriena. Kontratu mota hori duten atzerritar jatorriko biztanleen proportzioa % 48,8 izan zen 2010ean, % 56, berriz, 2014an, % 61,9 2018n eta % 71,2 izan da 2023an. Balio absolutuetan, horrek esan nahi du atzerritar jatorriko 31.884 pertsonak izan zutela kontratu mugagabea 2010ean, 35.376 pertsonak izan zutela 2014an, 51.757k 2018an eta 79.981k izan dutela 2023an, eta gorakada % 54,5koa 2018 eta 2023 artean. Azpimarratzeko hazkundera da.

Mugagabea ez den kontratazioaren eta kontraturik ezaren inpaktuak desberdina izaten jarraitu du atzerritar jatorriko biztanle-talde batzuetan. Hartara, 2023an, kontratu mugagabea dutenen ehunekorik baxuena (% 55,6) jatorria Senegalen dutenen biztanlerian daukagu; baliorik altuenak, ostera, % 80tik gora, jatorria Txinan, EBko mendebaldeko herrialdeetan eta Argentina, Txile eta Uruguain dutenen artean dago.

20. Atzerritar jatorriko landunei dagokienez, honako datu hauek ere nabarmendu behar dira:

- a) % 6,1ek Gizarte Segurantzari afiliatu gabe dihardute; proportzio horrek gora egin du zertxobait 2018ko % 5,6tik.

Afiliatorik gabeko kontratazioek batezbestekoa baino presentzia oso handiagoa dute paraguaiar jatorriko biztanleen artean (% 11,9) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenen artean (% 12).

- b) Lan partzialaren inpaktua, asteko 30 orduko beherakoa, oso handia da atzerritar jatorrikoen artean: % 19,3. Ehunekoa 2014koa (% 30,4) baino nabarmen txikiagoa da, eta 2010. urtetik (% 21,7) erregistratu den txikiena da.

- c) Atzerritar jatorriko herritar landunen % 5,2 enplegu-aniztuna da. Ehunekoak gora egin du 2018tik (% 4,5).

- d) Atzerritar jatorriko landunen % 9,5 beste lan baten bila ari dira, dela egungoa ordezkatzeko, dela baliabideak osatzeko. Hala ere, proportzioa txikiagoa da 2010ekoa (% 17,9), 2014koa (% 15,7) eta 2018koa (% 12,9) baino.

### **3.2.3. Biztanle langabeen egoera**

21. Adierazi bezala, langabezian dauden atzerritar jatorriko herritarren kopurua 2023an 31.182 pertsonakoa da. Iraupen luzeko langabeziaren (urtebetetik gorakoa) pisu erlatiboak 2018ko % 47,5etik (balio absoluturik baxuena duen urtea 11.331 pertsonarekin) behera egin du 2023ko % 41,1era. Oso iraupen luzeko langabezia (bi urte baino gehiago lan bila) egoeran dauden kopurua 6.421 pertsonakoa da, eta bere pisua langabe guztien artean 2018ko % 24tik 2023ko 20,6ra jaitsi da.



Langabeziaren inpaktua aztertuta kontuan hartuta iraupen luzekoaren edo oso luzekoaren presentzia handiagoa edo txikiagoa, 2023an jatorria Magreben eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten herritarrei dagokie arazorik handiena. Kasu horietan, % 32,6 eta % 42,6ko langabezia-tasak lotura dauka iraupen luzeko langabezia % 53,1 eta % 50,2 izatearekin eta oso iraupen luzekoa % 24,5 eta % 28,8 izatearekin.

22. 2023. urtean, Lanbidera jotzea izan da enplegua bilatzeko bide nagusia atzerritar jatorriko langabeen artean: % 71,9. Internet da enplegu-eskaintzen jarraipena egiteko beste bide garrantzitsu bat, 2023an langabeen % 39,6k erabili baitute.

Senide edo lagunengana jotzea da lana bilatzeko beste bide nagusi bat, kolektiboaren % 33,9k baliatzen baitu. 2018ko balioa (% 35,5) eta 2010eko (% 46,2) baino txikiagoa izan arren, handiagoa da 2014koa (% 31,2) baino. Enpresekin harremanetan zuzenean jartzen diren langabeen proportzioa % 17,6ra jaitsi da. Elkarteetara eta GKEetara jotzea, azkenik, beherantz ari da 2023ko % 5,5 arte.

23. Atzerritar jatorriko langabeek diote hainbat oztopo dituztela enplegua aurkitzeko. 2023an, berriz ere, oztopo nagusiak kualifikazioarekin eta esperientziarekin zerikusia duten alderdiei lotuta daude. Hala, % 24,6k prestakuntza-maila aipatu dute enplegua eskuratzeko muga gisa, eta % 26k lan-esperientzia. Kualifikazioari dagokion atal horren barruan, % 19k toki-esparruan erabiltzen diren hizkuntzen (euskara eta/edo gaztelania) jakite-maila ere aipatu dute. Balio horiek 2010, 2014 eta 2018koetatik beherantzko joeran daude; seriearen balorerik baxuenak dira.

Adina da inpaktu handia duten beste mugetako bat, eta aztertutako langabeen % 16,2k aipatu dute; hau da, 2010ean (% 11k) eta 2014an (% 15,2k) baino gehiagok, baina 2018ko datuaren (% 17,2) apur bat azpitik. Familia-kargak ere maiz aipatzen dira: aztertutako kolektiboaren % 7,3k aipatzen ditu. Oso azpitik geratzen dira sexua (% 1,2), soldata xedeak (% 3,6) eta muga fisikoak (% 5,8).

Jakina denez, aipatu faktoreek eragin negatibo bera dute bertoko langabeek enplegua eskuratzeko dauzkaten posibilitateetan. Bi muga, ordea, atzerritar jatorriko biztanleei baino ez dagozkie. Lehenengoa egoera administratibo edo legalari dago lotuta: aztertutako biztanleen % 22,5ek egin behar diete aurre egoera horri lotuta dauden enplegua eskuratzeko oztopoei. Faktore horren inpaktua 2010. urtetik erregistratutako altuena da.

Bigarren alderdiak 2018an baino eragin txikiagoa izan du. Zerikusia du etorkiari lotuta hautemandako mugekin, eta egiaztatu da etorkin langabeen % 15,2k nabarmentzen dutela enplegua eskuratzeko mugak daudela jatorrizko herrialdeari lotuta. Inpaktu hori 2010 (% 17,7) eta 2018an (% 18,1) izandakoarena baino baxuagoa da, eta 2014koa (% 32,3) baino askoz txikiagoa.

Atzerritar jatorriko biztanle-talde guztiek ez diete berdin aurre egiten atzerritar jatorriko biztanleen berezko problematika espezifikorik. Bizileku- eta lan-baimenak eskuratzeari lotutako lege- edo administrazio egoerari dagokionez, egoera hori bi problematika handienetako bat da jatorria Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta Kolonbia, Ekuador eta Peru herrialdeetan duten langabeen artean. Talde horietan, aztertutako pertsonen arteko % 34-44,4k planteatzen dute arazo hori. Eta garrantzitsua izaten jarraitzen du, erreferentziazko biztanleen % 16-23,1ek aipatzen baitute, etorkia Magreben, Argentina, Txile eta Uruguain eta Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublika eta Paraguai herrialdeetan duten pertsonen artean.



### 3.3 Taula estatistikoak

ACT-1. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko ikasleak, ikasketak-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia (ikasten ari direnak %-tan)

	2010			2014			2018			2023		
	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da
Jatorrizko eremua	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
EBko mendebaldea	6,0	4,9	10,5	9,0	3,0	12,0	6,6	0,0	6,6	6,0	2,8	8,7
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	8,1	7,5	13,9	11,5	5,4	16,9	8,4	2,6	11,0	8,5	0,1	8,7
Magreb	10,8	11,7	22,0	14,6	11,9	26,6	10,5	4,6	15,1	7,6	8,0	15,6
Argentina, Txile, Uruguai	17,7	8,7	25,7	17,2	9,1	26,3	9,9	0,0	9,9	4,4	2,2	6,7
Kolonia, Ekuador, Peru	16,0	6,6	21,4	16,5	3,6	20,1	12,1	0,3	12,3	12,5	4,0	16,5
Bolivia	17,0	4,9	21,7	9,6	5,8	15,3	18,8	1,6	20,4	14,7	2,2	17,0
Paraguai	7,9	4,3	11,4	7,4	4,9	12,3	10,7	3,8	14,5	8,3	2,8	11,1
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	16,5	8,8	22,8	17,7	4,1	21,8	12,0	2,5	14,5	10,0	3,1	13,1
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	11,5	8,2	18,2	10,4	3,1	13,4	5,0	0,0	5,0	7,8	4,2	12,0
Txina	8,0	4,1	12,1	7,8	2,0	9,8	7,5	1,3	8,9	7,0	2,7	9,7
Senegal	6,9	32,8	38,4	18,3	13,3	31,7	8,8	1,4	10,2	7,7	3,4	11,0
Afrikako gainerako herrialdeak	12,6	20,0	30,0	13,2	9,5	22,8	11,6	2,6	14,2	13,1	7,8	21,0
Munduko gainerako herrialdeak	6,1	16,5	20,3	17,6	15,4	33,1	8,7	2,2	10,9	8,8	5,9	14,8
<b>Guztira</b>	<b>11,7</b>	<b>9,0</b>	<b>19,5</b>	<b>13,6</b>	<b>6,8</b>	<b>20,5</b>	<b>10,2</b>	<b>1,8</b>	<b>12,0</b>	<b>9,4</b>	<b>4,3</b>	<b>13,7</b>

Iturria: 2010 eta 2023 aldiko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ACT-2. Araututako ikasketak egiten ari diren 16 urtetik beherako atzerritar jatorriko biztanleak, eskolan integratzeko arazoaren presentziaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia  
(taldekoen %)**

		Eskolan integratzeko arazoak										
		Eskola- atzerapena	Bullying, jazarpena, tratu txarrak	Eskola- absentismoa	Arazoak hizkuntzarekin	Erlijio- arazoak	Elikatzeko arazoak	Atzerritar asko	Beste batzuk	Arazoren bat	Arazorik ez	Guztira
<b>Jatorrizko eremua</b>												
2010	EBko mendebaldea	10,0	4,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	7,6	17,6	82,4	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	14,9	6,5	0,0	3,6	0,0	1,7	2,6	0,6	20,8	79,2	100,0
	Magreb	4,4	0,4	0,0	4,3	0,0	0,0	2,6	0,0	10,8	89,2	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	3,5	1,1	0,0	1,1	0,0	0,0	0,0	0,0	3,5	96,5	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	10,8	3,8	0,0	2,7	0,0	0,0	2,0	0,5	16,5	83,5	100,0
	Bolivia	9,8	14,4	0,0	8,4	0,0	0,0	0,0	0,0	27,9	72,1	100,0
	Paraguai	15,4	0,0	0,0	1,6	0,0	0,0	0,0	0,0	17,0	83,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	9,7	3,0	0,0	5,3	0,0	0,0	0,0	2,5	14,9	85,1	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9,1	0,0	0,0	8,6	0,0	0,0	0,0	0,0	17,7	82,3	100,0
	Txina	9,1	0,9	0,0	6,4	0,0	0,0	0,0	0,9	15,0	85,0	100,0
	Senegal	16,8	2,0	0,0	1,3	0,0	0,0	0,0	2,5	22,6	77,4	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	7,6	8,7	0,0	0,0	7,2	0,0	0,0	0,0	11,2	88,8	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	2,8	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	2,8	97,2	100,0
	Guztira	8,7	4,0	0,0	3,4	0,5	0,2	1,1	0,9	15,1	84,9	100,0
2014	EBko mendebaldea	3,6	1,0	0,0	2,5	0,0	0,0	1,0	0,0	7,1	92,9	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	7,1	3,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,0	10,6	89,4	100,0
	Magreb	3,5	0,0	0,0	0,6	0,0	0,0	0,0	0,0	3,5	96,5	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	0,0	6,5	0,0	0,0	0,0	1,8	8,3	91,7	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	7,4	2,1	0,0	3,1	0,0	0,0	0,0	0,0	12,6	87,4	100,0
	Bolivia	3,0	0,0	0,0	7,2	0,0	0,0	0,0	0,0	10,2	89,8	100,0
	Paraguai	3,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6	7,3	92,7	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	5,6	1,1	0,0	5,5	0,0	0,0	2,1	0,0	12,1	87,9	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	4,5	0,0	0,0	4,7	0,0	0,0	0,0	0,0	9,1	90,9	100,0
	Txina	3,3	0,0	0,3	14,1	0,0	0,0	0,0	0,0	17,6	82,4	100,0
	Senegal	4,0	3,4	0,0	2,9	0,0	0,0	0,0	0,0	8,2	91,8	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	6,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	6,2	93,8	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	1,2	0,0	0,0	3,9	0,0	0,0	0,0	0,0	5,1	94,9	100,0
	Guztira	4,5	0,9	0,0	3,0	0,0	0,0	0,4	0,1	8,4	91,6	100,0

Iturria: 2010 eta 2023 aldiko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ACT-2. Araututako ikasketak egiten ari diren 16 urtetik beherako atzerritar jatorriko biztanleak, eskolan integratzeko arazoaren presentziaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia (taldekoen %)**

		Eskolan integratzeko arazoak										
		Eskola-atzerapena	Bullying, jazarpena, tratu txarrak	Eskola-absentismoa	Arazoak hizkuntzarekin	Erljio-arazoak	Elikatzeko arazoak	Atzerritar asko	Beste batzuk	Arazoren bat	Arazorik ez	Guztira
<b>Jatorrizko eremua</b>												
2018	EBko mendebaldea	12,6	6,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	6,0	12,6	87,4	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	6,1	2,8	0,0	1,9	0,0	0,0	0,0	1,7	8,7	91,3	100,0
	Magreb	7,9	0,7	1,2	2,4	0,0	0,0	0,4	2,2	11,5	88,5	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	4,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	4,1	95,9	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	2,9	9,0	0,0	5,5	0,0	0,0	0,0	4,1	14,5	85,5	100,0
	Bolivia	20,1	9,8	4,6	12,7	0,0	0,0	4,5	0,7	29,9	70,1	100,0
	Paraguai	1,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	8,1	0,0	10,0	90,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	8,7	0,0	1,3	1,9	0,0	0,0	10,7	0,0	15,1	84,9	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9,5	1,8	0,0	3,5	0,0	0,0	4,6	6,3	20,4	79,6	100,0
	Txina	0,0	6,5	0,0	4,5	0,0	0,0	0,0	0,0	11,0	89,0	100,0
	Senegal	2,4	8,3	0,0	8,5	0,0	0,0	0,0	0,0	18,5	81,5	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	5,6	1,3	0,0	4,4	0,0	0,0	2,5	1,2	11,9	88,1	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	5,1	1,8	0,0	2,2	0,0	0,0	1,9	1,0	11,1	88,9	100,0
	Guztira	7,0	2,8	0,6	3,5	0,0	0,0	1,6	2,0	13,1	86,9	100,0
2023	EBko mendebaldea	10,4	0,0	0,0	4,3	0,0	0,0	0,0	4,7	19,4	80,6	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	9,7	6,2	0,0	8,5	0,0	0,0	0,0	6,2	21,9	78,1	100,0
	Magreb	4,8	0,8	0,0	6,2	0,0	0,0	0,0	1,3	11,1	88,9	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	0,0	5,2	0,0	0,0	7,3	0,0	12,5	87,5	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	10,1	7,8	0,0	21,1	1,5	0,0	0,0	7,2	32,4	67,6	100,0
	Bolivia	19,6	1,3	0,0	4,8	0,0	0,9	0,0	0,0	21,9	78,1	100,0
	Paraguai	16,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	16,6	0,0	16,6	83,4	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	8,5	4,5	0,0	7,9	0,0	0,0	2,4	4,8	20,6	79,4	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	12,2	11,7	0,0	16,7	0,0	0,0	1,6	5,4	34,0	66,0	100,0
	Txina	4,2	1,0	0,0	10,6	0,0	0,0	0,0	0,0	14,9	85,1	100,0
	Senegal	2,1	0,9	0,0	8,4	0,0	0,0	0,0	4,6	15,2	84,8	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	3,2	0,0	0,0	2,9	0,0	0,6	0,0	1,4	8,1	91,9	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	7,4	2,8	0,0	6,9	1,0	0,0	2,7	2,2	16,8	83,2	100,0
	Guztira	7,7	3,7	0,0	9,1	0,3	0,1	0,9	3,3	19,0	81,0	100,0

Iturria: 2010 eta 2023 aldiko AJBE. Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. EOE



**ACT-3. Araututako ikasketak egiten ari diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, eskolan integratzeko arazoaren presentziaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2023 arteko aldia (taldekoen %)**

		Eskolan integratzeko arazoak										
		Eskola-atzerapena	Bullying, jazarpena, tratu txarrak	Eskola-absentismoa	Arazoak hizkuntzarekin	Erlijio-arazoak	Elikatzeko arazoak	Atzerritar asko	Beste batzuk	Arazoren bat	Arazorik ez	Guztira
<b>Jatorrizko eremua</b>												
2010	EBko mendebaldea	6,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	6,5	93,5	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	12,2	0,0	0,0	0,0	0,0	2,7	0,0	0,0	12,2	87,8	100,0
	Magreb	15,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	15,2	84,8	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	30,6	0,0	0,0	2,6	0,0	0,0	0,0	0,0	30,6	69,4	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	18,1	2,8	0,0	1,0	0,0	0,0	2,5	0,0	18,1	81,9	100,0
	Bolivia	29,6	16,7	0,0	1,5	0,0	0,0	0,0	0,0	31,1	68,9	100,0
	Paraguai	44,7	0,0	0,0	2,6	0,0	0,0	0,0	0,0	47,3	52,7	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	25,5	0,0	0,0	5,6	0,0	0,0	0,0	0,0	27,3	72,7	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	26,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	26,3	73,7	100,0
	Txina	34,1	5,9	0,0	24,7	0,0	0,0	0,0	0,0	44,1	55,9	100,0
	Senegal	31,6	8,3	0,0	15,2	0,0	4,0	3,8	0,0	47,1	52,9	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	21,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	21,4	78,6	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	9,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	9,1	90,9	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>20,9</b>	<b>2,7</b>	<b>0,0</b>	<b>1,9</b>	<b>0,0</b>	<b>0,2</b>	<b>0,7</b>	<b>0,0</b>	<b>21,7</b>	<b>78,3</b>	<b>100,0</b>
2014	EBko mendebaldea	3,1	0,0	0,0	1,3	0,0	0,0	0,0	0,0	3,1	96,9	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	5,3	0,0	0,0	3,3	0,0	0,0	0,0	0,0	8,7	91,3	100,0
	Magreb	7,1	0,0	0,0	2,1	0,0	0,0	0,0	0,0	7,9	92,1	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	0,0	7,6	0,0	0,0	0,0	0,0	7,6	92,4	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	13,0	2,3	0,0	2,1	0,0	0,0	0,0	0,0	16,5	83,5	100,0
	Bolivia	16,0	0,0	0,0	5,8	0,0	0,0	0,0	0,0	19,9	80,1	100,0
	Paraguai	24,9	0,0	3,1	0,0	0,0	0,0	0,0	3,1	24,9	75,1	100,0
